



C.I.F.P. FADURA L.H.I.I.

HIZKUNTZ POLITIKA  
POLITICA LINGÜISTICA

## HIZKUNTZA POLITIKA

Gure ikastetxeko hizkuntza-errealitatetik abiatuta, eta errealitate horren hausnarketaren ondorio gisa, hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak zehaztu nahi ditugu dokumentu honetan.

### **ERABILIKO DEN HIZKUNTZA:**

Euskararen erabilera eta harekiko jarrera baikorra sustatzeko zehaztuko ditugu honako helburu hauek:

- Komunikatzeko tresna eragingarria izatea.
- Harremanetarako hizkuntza nagusia izatea.
- Edozein arlotan ikasketak euskaraz egiteko aukera izatea
- Gure Herriko kultura-hedatzailea izatea.

Euskararen erabilera sustatzeko konpromisoa:

- 1- Kanpoko zein barrukoekin lehen hitza euskaraz, euskararen erabilera bultzatu
- 2- D ereduko taldeetan euskararen presentzia nagusi izan, bai klase barruan bai kanpoan.
- 3- Euskaldunak hiztun aktiboak izan, eredua izan.
- 4- Bileren nagusiak, klaustroak eta Batzorde Teknikoa, bi hizkuntzatan izan
  - Hasiera eta bukaerako agurrak euskaraz izango da beti.
  - Informazioa ematean ahozkoan euskaraz baldin bada, gazteleraz proiektatuko da, eta alderantziz berdin.
  - Aktak ele bitan izango dira
- 5- Institutuko dokumentazioa ele bitan izan
  - Estamentuen arteko jakinarazpenak ele bitan izan
  - Ikasturteko Plana, departamentuko txostena, koordinazio eta proiektuetako txostenak... Agiri horiek, hizkuntza bakarrean egingo dira, baina bigarren hizkuntzan hasiera eta ondorioak egingo dira.
  - D ereduko taldeen programazioak, aktak, eta oinarrizko material didaktikoa euskaraz izan
  - Kanporako dokumentazio idatzia ele bitan izan, hau da, instituzioekin, enprekin, hornitzaileekin, elkarteekin.
- 6- Lantokiko prestakuntzan, talde euskaldunetan euskaraz egitea saiatuko gara, baina ezinbestekoa bada erdaraz egitea onartuko dugu.
- 7- Jarduera osagarrietan, talde euskaldunetan euskaraz egiten saiatuko gara, baina ezinbestekoa bada erdaraz egitea onartuko dugu



**C.I.F.P. FADURA L.H.I.I.**

**HIZKUNTZ POLITIKA  
POLITICA LINGÜISTICA**

- 8- Euskal kultura helarazteko jarduera berariazkoak bultzatu ditugu eta horrez gain eskualdeko gizarte eragileekin harremanetan izango gara haien ekintzetan parte hartzeko.

### **HIZKUNTZA NOLA ERABILIKO DEN:**

#### **Zer da hizkuntza?**

- Hizkuntza komunikazio tresna da (esan nahi duguna nahi dugun moduan esan dezakegu?).
- Gertaera soziala (hartu-emanak eskatzen du, parte hartzea, pertsonak).
- Prestigiosko ezagupena (ez dago guztien esku hizkuntzaren ezagutza; alfabetatugabeak eta etorkin batzuen integrazio arazoak).
- Kultur adierazpidea (hizkuntza kulturaren parte da eta kultura hizkuntzarena).
- Errealitatearen isla (eguneroko gertaerek eragiten dute hizkuntzaren erabileran, hitz hautaketan adibidez).
- Ezagupena sortzeko bidea da (jakituria lortzeko hizkuntza eta terminologia ezagutu behar ditugu).
- Errealitatea interpretatu eta sinbolikoki sortu egiten du (izena duenak izana du).
- Pentsamoldea baldintzatzen du (erretorikaren, ondo hitz egitearen boterea eta informazio berria jasotzean "fitxeroan" sartzen dugu eta beste jakituriak bazter ditzake).
- Arketipoak transmititzen ditu.
- Generoen irudikapena adierazten du.
- Nortasunaren eta identitatearen garapenerako garrantzitsua da.
- Lurralde edota nazio baten ezaugarria da.
- Jendarteak eta historiak sortutakoa da.
- Moldagarria da, etengabe aldatzeko gaitasuna du, garai berrietara egokitzeko ahalmena du nahiz eta zaharkituta dagoen eta aipatutako egokitzapena ez den guztiz gauzatu (eta hor agertzen da hizkera ez-sexistaren beharra besteak beste).

Gure gizartean berdintasunaren bidean nabarmen aurrera egin dugun arren, kultura sexista eta androzentrista batean hezi eta bizi garela badakigu; ondorioz, errealitate hori azaltzen dugu hizkuntzaren erabileran.

Indarrean dugun jendarte ereduak emakumeen eta gizonen ezberdintasunetan oinarrituta dago. Gauzak asko aldatu diren arren azken urteotan, pertsonen arteko ezberdintasunak sostengatzen eta erreproduzitzen dituzten balore eta sinismen multzo pila ditugu. Hizkuntzaren erabilerak ere, horren adierazlea da. Hizkuntzak gure mundua eta errealitatea ulertzeko ikuskerak islatzen ditu, baita ikuskera diskriminatzaileak eta baztertzailak ere.



C.I.F.P. FADURA L.H.I.I.

HIZKUNTZ POLITIKA  
POLITICA LINGÜISTICA

Hizkuntzak, errealitatea izendatzeaz gain, interpretatu eta sortu ere egiten du eta era honetan esparru eta eremu desberdinetan gizon eta emakumeek duten presentzia azaldu eta berdin baloratzen dituen hizkuntzaren erabilera beharrezkoa dugu.

## EUSKARA

Euskara *genero gabeko* hizkuntza izan arren, erabilitako terminoen eta kontzeptuen bidez botere egoerak, rolak, bazterkeriak eta abar azaleratu daitezke.


Beraz, dauden aukerak ezagutu eta horiekin jokatzeko ikasi behar dugu, errepikakorra izan gabe eta hizkuntzen ekonomiari jarraiki, baina, era berean, generoen arteko oreka mantenduz. Horretarako, hona hemen gomendio batzuk:

### HITZ EGITERAKOAN

- **Emakumeak izendatzeko modu iraingarriak saihestu:** *alua, txotxola, tuntuna, txolina...*  
**MARI**+zikin, +purtzil, +maestra, +matxarda, +txu...  
**EMA**+galdu, +txar, +gizon, +tu, +zikin...
- **Estereotipoak saihestu:** *zortzi kontseilari eta euren emazteak etorri ziren* beharrean > *zortzi kontseilari eta euren bikotekideak etorri ziren*
- **Kontuz hitanoaren erabilerarekin. Erabiliz gero, generoa zaindu.**
- **Ahal denean giza- ordezkatu:** *gizaki, gizaseme, gizarte, giza...* beharrean > *pertsona, jendarte, sozietate, sozial...*
- **Ahal denean anaiaren eratorriak ordezkatu:** *anaiak, anaitar, anaitasun, anaiarte...* > *senide, adiskidetasun, elkarte, herrikide...*
- **Gizon hitzarekin osatutako hitz elkartuak ordezkatu:** *lege-gizon, enpresa-gizon, kultura-gizon, itsasgizon...* beharrean > *legelari, enpresari, kultura-pertsona, itsas-langile...*
- **Generoa daukaten izenak, biak erabili:** *emakumeak eta gizonak, seme-alabak, aiton-amonak, neska-mutilak...*
- **Termino orokorra erabili:** *guraso, irakasle, gazte...*
- **-sa atzikia gero eta hedatuago dago, baina euskarak ez du estrategia horren beharrik:** *alkatesa, aktorea...* beharrean > *alkate* (edo *alkate andrea* generoa nabarmendu nahi denean), *aktore* (edo *emakumezko aktore*)...

### IDAZTERAKOAN

- **"@" testuetan generoa identifikatzeko ez du balio**, beraz. Izatekotan, sare sozialetan erabili ahalko genituzke, karaktere kopurua mugatua denean, hain zuzen ere.
- **"-" erdiko marra erabili behar da:** *emakume-gizon, neska-mutil...*

	<b>C.I.F.P. FADURA L.H.I.I.</b>	
	<b>HIZKUNTZ POLITIKA POLITICA LINGÜISTICA</b>	

- **“/” barra ere erabil daiteke**, batik bat espazio arazoa dagoenean: emakume/gizon, jaun/andre...